



EBAZPENA, 2015eko ekainaren 2koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen honen bidez ondoren zehaztutako deialdiko 6.4 artikulua ezarritakoaren arabera aurkeztutako eskaerak behin betiko ebazten dira. Deialdia hau da: 2014-2015 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen eskola-garraiorako banan-banako diru-laguntzetarako deialdia.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko sailburuaren 2014ko abenduaren 17ko Aginduaren bidez, 2014-2015 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen (2014ko abenduaren 19ko EHAA).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko sailburuaren 2015eko maiatzaren 12ko Ebazpenaren bidez, behin-behinean ebatzi zen aipatutako deialdiko 6.4 artikulua ezarritakoa, eta 2015eko maiatzaren 15ean argitaratu zen "euskadi.net" Web-guneko iragarki taula elektronikoan. Halaber, alegazioak egiteko epea ezarri zen.

Alegaziorik aurkeztu ez denez gero eta aipatutako deialdia arautzen duen Aginduaren 8. artikulua arabera,

EBAZTEN DUT:


Lehenengoa.- Deialdian araututako baldintzak betetzen dituzten Gipuzkoako eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako ikasleen diru-laguntzak esleitzea behin betiko.

Bost mila, ehun eta zazpi koma hamasei euro (5.107,16 €) diru-kopurua esleitzea.

Bigarrena: Deialdiaren behin betiko esleipen hau eta onartuak izan diren eta izan ez diren eskabideen zerrendak argitara ematea "euskadi.net" Web-guneko iragarki taula elektronikoan, interesdunak jakinaren gainean egon daitezten.

Hirugarrena: Behin betiko ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuari hilabeteko epean, "euskadi.net" Web-guneko iragarki taula elektronikoan ebazpen honen berri ematen den egunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainaren 2an.


Olatz Garamendi Landa
Administrazio eta Zerbitzuen sailburordea
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA